

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN 2009-2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 1/88 Legeari jarraiki, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena 2009 eta 2010eko ekitaldiei dagokie eta BGPren kontuak ez ezik, Bilboko Metroa, SA (BM) Sozietate Publikoarenak ere besarkatzen ditu. Txostena Osoko kideen gehiengoak onetsi du eta horietako bik boto partikularra egin dute.

Fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria eta obren kontratazio, erosketa eta zerbitzuen alorrean.

Legezkotasunaren atalean Epaitegiak uste du BGPk eta BMk zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita. BGPri dagozkion salbuespenak zehatzak dira. BMri dagokionez, hainbat salbuespen azpimarratu dira langileriaren atalean eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioan.

Honela, bada, BMren langileriari dagokionez, 2010ean bi zuzendariri lan kontratu mugagabeak egin zaizkie, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ezarri gabe eta 2009an kanpoko enpresa baten bitartez egindako langileen kontratazioetan, hautaketaren azken fasean ez dago langileen kontratazioari ezargarriak zaizkion printzipioak egiaztatzea bideratuko duen balioztatutako zerrendarik.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, lehenik eta bat BMk ez duela kontratazio prozedurak arautuko dituen jarraibiderik, ez kontratugilearen profilik ere adierazten da, indarreko legediak agintzen duen legez. Gainera, zerbitzuak esleitzeko hainbat espedientetan indarreko legedian hainbat ez-betetze xehatu dira, kontratugilea hautatzeko fasean eragina dutenak eta kasuren batean, baita proiektua hartu eta azken onespena emateko fasean ere; berebat, ezargarria den arautegia saihestuta egindako kontratazioak azaleratu dira.

BGPren eta BMren Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du kasu guztietan; bi salbuespen zehatz daude eta BGP 2009an eragiten duena azpimarratuko dugu, baliatu gabeko zorpetzeari buruzkoa; ordea, 2010ean zuzendu da akatsa.

Epaitegiak, gainera, hainbat irizpen egin ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz eta BMri luzatu dizkion oharpenak nagusitzen dira, erantzukizun plusari buruzkoak; baita egindako gomendioak ere, zuzendarien ordainsariei dagokienez eskakizunak ezartzeko; aurrekontuaren mugaketak, lanuzteagatiko kalte-ordainak, e.a.; horiek guztiak ez ditu nahitaezkoak BMk, baina bere jarduera finantzatzen duten erakundeei ezargarria zaien araudia aintzat hartuta (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) gomendagarria litzateke baldintza horiek ezartzea.

Txostenak, halaber, 2027ko urtera arte egin den Inbertsio Planari eta Finantza Planari buruzko atala jaso du, data horretan aurreikusi baita zorra amortizatzea. Plan hauetan inbertsioak amaitzeko aurreikusitako amaiera data 2013 da. Data horretatik aurrera eta 2027 urtera arte, partzuergoan bildutako erakundeen ekarpenak, 1.065 milioi euro inguru arte, interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko baliatuko lirateke, 745 milioi eurorena, eta gainerakoa BGP eta BMren ustiaketa gastuetarako, guztira 320 milioi euroren zenbatekoan.

2010eko ekitaldi itxieran finantza egoerari dagokionez, ekitaldi itxieran hitzartutako kredituak daudela jakinarazi da eta horiei data bereko Diruzaintza Geldikinarekin egin dakieke aurre. Berebat, BGPren zorpetzea 2010eko ekitaldi itxieran 499 milioi eurorena dela jakinarazi da.